



**ZUBIETAKO UDALA**  
(Nafarroa)  
31746

Francisco Michelena Celayeta.  
Jose Maria Michelena Erasun.  
Ezekiel Loiarde Santesteban.  
Imanol Baleztena Elizalde.  
Leire Bazterrika Loiarde.

2018ko maiatzaren 10ean, 19:00etan, Zubietako Herriko Etxean elkartzen dira ohiko biltzarrean ondoan aipatzen diren zinegotziak, legeak eskatzen duen bezala deitu eta gero. Ernesto Dominguez Olea —Alkatea— da bilkurako burua eta idazkaria, Miguel Jose Belarra Tellechea. Gai Zerrendako gai hauek aztertu dira:

### **1. AURREKO BILKURAKO AKTA ONETSI.**

Udalburuak galdetu du zinegotziren batek oharren bat egin nahi ote dion deialdiarekin batera banatu zen aurreko bilkurako aktari. Inork ez du azalpenik egin eta aho batez onartzen da akta.

### **2. PLAZA ESTALTZEA.**

Alkateak hitza hartu eta adierazi du Zubietan toki estali baten beharra egon arren, eta plaza lekurik egokiena dela uste osoa izan, plazaren zati bat estaltzearen ideiak iritzi kontrajarriak sortu dituela. Hori guztia dela eta, proposatu du plazaren zati bat estaltzearen asmoa bertan behera uztea; ideiaaren inguruan egindako lana hor gelditzen da, baldin eta beste Udalen batek aprobetxatu nahi balu aurrerago.

Udalbatzak aho batez erabakitzen du plazaren zati bat estaltzearen asmoa bertan behera uztea.

### **3. ERAIKUNTZARI BURUZKO ORDENANTZAREN ALDAKETA.**

Zubietako Udalak, 2017ko abenduaren 18an egindako osoko bilkuran, legeak eskatzen duen quoruma zuela, erabaki zuen hasiera batean onestea aldaketa Eraikuntzari buruzko ordenantzaren 36. artikuluan. Iragarkia 2018ko 41. Nafarroako Aldizkari Ofizialean eman zen argitara, otsailaren 27an.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325. artikuluan xedatuari jarraikiz, eta jendaurrean egoteko epea inork alegaziorik aurkeztu gabe iraganik, aho batez erabakitzen da:

1. Ordenantzaren aldaketa behin betiko onestea.
2. Aldaketaren testua osorik argitaratzea Nafarroako Aldizkari Ofizialean, behar diren ondorioak izan ditzan.

Imanol Baleztena bilerara sartu da.



**ZUBIETAKO UDALA**  
(Nafarroa)  
31746

#### **4. 2017KO KONTUAK.**

2017ko kontuen espedientea aztertu ostean, Kontuen Batzorde Berezia gisa arituz, aho batez erabakitzen da:

1. Aldeko txostena ematea 2017ko kontuei.
2. Espedientea jendaurrean jartzea 15 eguneko epean.

#### **5. PLAN EKONOMIKO FINANTZARIOA.**

Kontuan izanda 2017ko ekitaldian ez zela bete Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko 2/2012 Lege Organikoan ezarritako gastuen gaineko araua, aho batez erabakitzen da ekonomia eta finantza plana onestea, 2018ko eta 2019ko ekitaldietan hura betetzea xede.

2/2012 Lege Organikoaren 23.4 artikuluan eta Aurrekontu Egonkortasunari buruzko 18/2001 Legea garatzeko Erregelamendua onesten duen 1463/2007 Errege Dekretuaren 26. artikuluan xedatua bete beharrez, erabakitako onespina jendaurrean egonen da, ediktua Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaraturik, aditzera emateko ez beste deusetarako.

Ekonomia eta finantza planaren kopia bat jendearen eskura egonen da harik eta planaren indarraldia bukatu arte, orobat aditzera emateko ez beste deusetarako.

#### **6. AURREKONTU ALDAKETAK.**

2018ko aurrekontu orokorrean kreditu aldaketak egiteko 1 eta 2 zenbakia duten espedienteak aztertu ostean, aho batez erabakitzen da:

1. Hasierako onespina ematea kreditu aldaketa egiteko 1 zenbakia duen espediente honi (diru-sarrerak sortutako kreditua):

Gastuak:

1-3121-21200 Mediku kontsultako konponketak 9.325,97 €

Finantzaketa:

1 7508003 Mediku kontsulta berritzeko diru-laguntza 9.325,97 €

2. Hasierako onespina ematea kreditu aldaketa egiteko 2 zenbakia duen espediente honi (ohiz kanpoko kreditua):

Gastuak:

1-1522-21201 Eskolako leihoen berrikuntza 20.414,34 €

Finantzaketa:



**ZUBIETAKO UDALA**  
(Nafarroa)  
31746

1-870 Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina 20.414,34 €

3. Espedienteak jendaurrean jartzea 15 egunez.

## **7. BALORAZIO TXOSTENA.**

Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistroari eta katastroei buruzko 12/2006 Foru Legeak xedatzen ditu 35. artikuluan balorazio ponentziak berrikusteko inguruabarrak. Kontuan izanda azkenekoz berrikusi zenetik, bost urte igaro direla eta, gainera, hirigintza plan berria onetsi dela, eta 100/2008 Foru Dekretuaren 37.1 artikuluaekin bat etorritz, aho batez erabakitzen da:

1. Balorazio ponentziaren proiektua egitea.
2. TRACASA enpresa kontratatzea lanak egiteko 4.587,47 eurotan, gehi BEZa.

3. Erabaki hau jakinaraztea Lur-Ondasunen eta Ondarearen gaineko Tributuen Zerbitzuari.

## **8. AURKIDIKO BIDEA.**

2017ko urriaren 9ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean eman zen argitara 393/2017 Ebazpena, irailaren 29koa, Toki Administrazioako zuzendari nagusiak emana, 2017-2019 aldirako Toki Inbertsioen Planean, Toki Programazioaren barrenean, “bizitoki iraunkorretara doazen eta biziguneen arteko bideei” dagokion atalean sartutako inbertsioen behin betiko zerrenda onesten duena, eta, horrekin batera, urtez urteko banaketa. Finantzatzen ahal diren inbertsioen zerrendan dago *Aurkidiko* bidea, 2019an egiteko.

Abenduaren 13ko 18/2016 Foru Legearen IV. eranskineko 4. atalean xedatutakoa betez, aho batez erabakitzen da:

1. “*Aurkidiko bidea* hormigoitzeko” proiektua onestea, M.M.O. ingeniariak egina.
2. Inbertsioaren finantza plana onestea.
3. Diruzaintza gerakineko 26.215,06 euro afektatzea obrak finantzatzeko.
4. Erabaki hau jakinaraztea Toki Administrazioako zuzendari nagusiari.

## **9. AZKONTZULOETAKO BIDEA.**



**ZUBIETAKO UDALA**  
(Nafarroa)  
31746

2017ko urriaren 9ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean eman zen argitara 393/2017 Ebazpena, irailaren 29koa, Toki Administrazioako zuzendari nagusiak emana, 2017-2019 aldirako Toki Inbertsioen Planean, Toki Programazioaren barrenean, “bizitoki iraunkorretara doazen eta biziguneen arteko bideei” dagokion atalean sartutako inbertsioen behin betiko zerrenda onesten duena, eta, horrekin batera, urtez urteko banaketa. Finantzatzen ahal diren inbertsioen zerrendan dago *Azkontzuloetako* bidea, 2019an egiteko.

Abenduaren 13ko 18/2016 Foru Legearen IV. eranskineko 4. atalean xedatutakoa betez, aho batez erabakitzen da:

1. “*Azkontzuloetako bidea* hormigoitzeko” proiektua onestea, M.M.O. ingeniariak egina.
2. Inbertsioaren finantza plana onestea.
3. Diruzaintza gerakineko 12.439,49 euro afektatzea obrak finantzatzeko.
4. Erabaki hau jakinaraztea Toki Administrazioako zuzendari nagusiari.

## **10. UDALETXEKO TEILATUA.**

2017ko urriaren 27ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean eman zen argitara 413/2017 Ebazpena, urriaren 16koa, Toki Administrazioako zuzendari nagusiak emana, 2017-2019 aldirako Toki Inbertsioen Planean, Toki Programazioaren barrenean, “Udal ekipamenduak eraikuntzako araudi teknikora egokitzeari” dagokion atalean sartutako inbertsioen behin betiko zerrenda onesten duena, eta, horrekin batera, urtez urteko banaketa. Finantzatzen ahal diren inbertsioen zerrendan dago Udaletxearen estalkia eraberritzea eta termikoki isolatzea, 2019an egiteko.

Abenduaren 13ko 18/2016 Foru Legearen IV. eranskineko 4. atalean xedatutakoa betez, aho batez erabakitzen da:

1. “Udaletxearen estalkia eraberritzea eta termikoki isolatzeko” proiektua onestea, F.J.C.S.M. arkitektoak egina.
2. Inbertsioaren finantza plana onestea.
3. Diruzaintza gerakineko 15.013,35 euro afektatzea obrak finantzatzeko.
4. Erabaki hau jakinaraztea Toki Administrazioako zuzendari nagusiari.

## **11. ESKABIDEAK.**



**ZUBIETAKO UDALA**  
(Nafarroa)  
31746

Aho batez erabakitzen da 50 euroko diru-laguntza ematea Iñigo Aritza ikastolari, 2018ko Nafarroa Oinez antolatzeko.

## **12. MOZIOAK.**

Aho batez onesten da GURE ESKU DAGO-ren mozioa, erabakitzeke eskubidearen eta maiatzaren 6ko kontsultaren alde.

## **13. ALKATETZAREN EBAZPENAK.**

Alkateak emandako ebazpen hauen jakinaren gainean geratzen da Udalbatza: 2018/10etik 2018/25era.

## **14. HERRIKO GAIEI BURUZKO INFORMAZIOA.**

1. *Armizko* parajeko baso aprobetxamenduaren bukaerako ikuskapen-akta irakurri da (Natur Ingurunearen Zerbitzuko zuzendariaren 119/2018 Ebazpena), zeinean 416,55 eurotan zenbatesten baitira eragindako kalteak. Aho batez erabakitzen da Maderas Larreta SL-ri eskatzea kalteak ordaintzea.

2. Jarraian, agiri hauen jakinaren gainean geratu da Udalbatza: Udalari emandako baimena larreak erretzeko; Natur Ingurunearen Zerbitzuko zuzendariaren 159/2018 Ebazpena —sakabanaturiko zuhaiztia aprobetxatzeko baimena—; Nafarroako Gobernuak eman dituen baso aprobetxamenduko baimenak —M.T. eta P.J.H.ri—; Nafarroako Gobernura bidali diren baso aprobetxamenduko baimen eskaerak —S.I. eta L.J.renak—; Ehiza Mankomunitateko agiriak; “*El reto 2018- Ronda a Navarra*” izenburuko martxa; Abeltzaintzako zerbitzuak bidali dituen Ustiapenen Erregistroan izandako mugimenduak —I.L.ren alta eta R.E. eta P.S.en bajak—; Herri eta Lan Osasuneko Institutuak egindako ur-analisien emaitzak; *Artikutzako* larreen tipologia aztertzen duen lana.

3. Alkateak hitza hartu eta gai hauek azaldu ditu:

- Malerrekako Eguna.
- Bestaberri.
- *Itziarreko bidea* konpontzeaz dago.
- Zentraleko bidearen konponketa.

4. Leire Bazterrikak hitza hartu eta *Kultur Ibilbideari* buruzko xehetasunak eman ditu. *Euskararen Egunean* egiteko ahalengitzea erabaki da.

## **15. GALDE-ESKEAK.**

Ez da galderarik egin.



**ZUBIETAKO UDALA**

(Nafarroa)  
31746

Eta bertzerik ezean, 20:30ak direnean, alkate jaunak bilera akitutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.